

Klaus Rifbjerg prosazko poemak

JUAN MARI MENDIZABAL

Klaus Rifbjerg [1931] Danimarkako gerra osteko egile adierazgarri eta ezagunenetako bat da gaur egun. Idazle izugarri emankor (haren azken liburuaren atzealdean datorren zerrendan 130 idazlan agertzen dira) eta polifazetikoa da, argitaratu ditu poesia bildumak, eleberriak, saiakerak, film gidoiak –hala nola Jørgen Lethen 1983ko «Pelota» filmean-, artikulu ugari... Luzaro izan da pertsonaia zentrala Danimarkako kultura alorreko eztabaidetan, probokatzaile iaioa izanik, eta Gyldendal argitaletxe ospetsuan literatur editore ere ibili zen urte batzuetan.

Egilea ez zitzaidan arrotza (haren *Anna (jeg) Anna* eleberria 2003an itzuli bainuen espainierara) Bassarai argitaletxea hurbildu zitzaidanean *70 epifanier* espainierara itzul nezan. Bere 70. urtemuga zela-eta argitaratu zituen 70 epifania hauek, prosazko poemak, luze-labur desberdinekoak.

«Hirurogeita hamar urteetara hurbiltzen zarenean», egilearen hitzak dira, «bizitzan barrena izan dituzun esperientzia extatiko, magiko, dibertigarri, lazgarri eta zirrargarriak laburbiltzeko premia senti dezakezu. Horregatik idatzi nituen *70 epifania* hauek, erregistro sakon bat izan gabe niretzat poesia zer den laburbiltzen dutenak. Energia eta umorea kontzeptu gakoak dira testuotan, baina horrekin batera badago guztiaren iheskortasunaren kontzientzia apala, baita patuak ekarri dizuna erabat onartzeko egin-behar artistikoarena ere».

Lan trinko honetan barne diskurtsoa azalerratzen da, joandako 70 urteetako pasadizoak txirikordatzen dituena, elkarrizketa-bakarriz-

keta moduan, dena puntuazio urriz apaindua. Testu konplexua da, alegorikoa tarteka (itzultzen hasi nintzenean «asmakizunen liburua» esaten nion, ez nuelako ulertzen zer demon-trez ari zen egilea), umoreaz, ironiaz, samurtasunez blaitua. Poemen alboan Arne Hauge Sørensen artista daniarraren zenbait akuarela daude, unean uneko poemaren edukiari dagozkionak, artista-liburu honen parte.

Lanean ari nintzela, iruditu zitzaidan aspaldi egindako promesa bat –alegia, SENEZen bidez Danimarkako poesiaren berri ematea– betetzeko aukera eman ziezadakeela okasioak. Beraz, espainierara itzultzen ari nintzen bitartean halako aukeraketa bat egiten hasi nintzen, eta haren destilatze prozesutik sortu dira orain eskuen artean dituzun poemak, irakurle. On dagizula. Epifania guztiak (espainieraz eta akuarela soil baina egokiez hornituak) irakurri nahi dituenak Ediciones Bassaraik uda inguruan argitaratuko duen artista-liburua eskuratu beharko du.

HEZETASUNA

Noizbait ibiliko ziren gizonak jardunean, baina pentsatzeak ere lanak ematen ditu. Hain dago bere baitara bilduta, hain da buruaskia, autonomoa, buruestimu erasanezinez liluragarria. Goroldioa dago barandan, hori nahikoa balitz edo ezer frogatuko balu bezala. Gehiago behar da horretarako, eta gehiago *dago*, bai, askoz gehiago, mugarik ez. Zilegi bekit aipatzea azeri-buztana, garoa, mingarratza, adibide pare bat jartzearren. Gehiago egon litezke, askoz gehiago, infinitu. Ezer bageneki. Baina nahikoa da eskuak barandan jartzea. Horrela esaten al da? Eskudela? Eskubanda? Bi hagak?, uf, ez, zurezko bi zer? Motelegi. Bi eskubanda (bi eskudel?) doaz zubiaren alde batetik bestera, eta bestetik batera. Beti daude heze, berdin-berdin dio, beti daude heze, beti. Haiei hel diezaiekezu, edo ez erabili. Bermatu zaitezke ere, besterik gabe, baina egiten duzuna egiten duzula beti dago hezetasun hori, eta hori ez da gizakiak sortua, bestea bezala. *Hezetasun* eternal, ezabaezin, beldurgarri samar horren sortzaileak ez ditu erretenak egin, ez du palarekin jardun, ez da harremanetan jarri lur-neurtzailearekin, eta hark ez du ekarri erabili ohi duten aparatua, izena inork ez dakien hori, inortxok ere ez, ez baita horrela, egoera horri saihestezin esan lekiok justizia handiz, horietakoa baldin bazara, eta izan ez balitz berde deskribaezin horregatik, landaretza horregatik, landare joritasun horregatik, hala ere izen bana duena kasu bakoitzerako, zubi azpian argiro ikusi ahal izango litzateke ura, ur garbia, tarteka uherra eta burdina kolorekoa, baina ura. Ura. Ez dago zalantzarik. Hori ez da hezetasuna, tira, esan dut.

Euri jasaren ondoren erlejale saldo bat oraindik erdi hostogabetutako zuhaitz batean pausatu da. Itsaso gaineko bidaiaren ostean akituta daudela pentsa liteke. Baina han-hemenka ari dira hegaldatzen, badirudi abiatu egingo direla, itzuli egiten dira. Kontra-argian ikusezinak dira haien kolore nabarrak. Beharbada euriagatik da, beharbada ezabatu egin dituzte zehar-bidaian hartutako zaparradek. Beharbada. Nor arraiok daki zer pentsatzen duten erlejaleek?

SEKRETURIK INTIMOENA

Kontua da ea jendeak bere sekreturik intimoena etxean uzten duen, edo beraiekin ekartzen duten etortzen direnean. Litekeena da beraiekin ekartzea, ezin daiteke sekreturik intimoena etxean utzi besterik gabe, eta sekretuarena koplarik gabe hartzen baduzu, orduan barruko gauza da, ez jantzi eta erantzi daitekeen zerbait. Irudikatuz gero, belus gorrizko kuxin batean behar du egon, koroaren harribitxiak bezala Rosenborg jauregian, baina horiek txorakeriak dira, noski, sekreturik intimoena gauza izugarri pertsonala baita, inoiz desestaltzen ez den gauza, eta horrenbestez ilunpean egon behar du. Sekreturik intimoena zurekin hilobira eramaten duzu, hala ere beti izaten da norbait berarekin dakarrena, eta modu penagarrian, gainera, ez baitu inoiz bere burua desestaltzen, baizik eta beti erakusten oharpen moduan, begirada batez, kartei heltzeko moduz, eta jasanezina izaten da, ezin baitezakezu ezer esan, ezin bat-batean oihukatu: «Heldu ganoraz kartei! Ez esku-baldar izan, *ikusi egiten zaizkizula kartak!*». Ezin da halakorik egin, ez da egiten, bederen, agian senez ulertu duzulako hori dela jendeak bere sekreturik intimoena agerian uzteko modua –ez *in toto*, zatika eta bereizita baizik-, eta horrela hezi gaituztelako. Ezta pentsatu ere. Eta jakina, hondamendia erabatekoa izaten da sekreturik intimoena gainerakoentzat ez baldin bada inolako sekretua eta tipoak jo eta kartak mahai gainera bota eta jokatu nahi ez badu, haserretu eta haur baten moduan negarrez hasten bada galtzea jasanezina egiten zaiolako. Izugarria da, alajaina, indiskretua ez esatearren, eramanezina da, ez berez horren amorragarria delako, hori ere bai, noski, batez ere pertsona helduez ari garenean, baizik eta gainean errebotatzen dizulako modu amorragarri onartezinean, gehiegikeria baita, oihalak banan-banan zabalduz doaz, eta hor, erdi-erdian, daude koroaren harribitxiak, kendu ezin daitekeen muki bat bezalakoxeak, ez ura, ez bentzina, ez petrolioa ez gizateriak ezagutzen duen beste ezein laguntzarik erabilita kendu ezin den mukia. Horra zer den sekretua.

Garbitze-lanak are gehiago bizkortu dira hilotza eraman dutenean. Txistuka hasteko gogoia ematen du ia-ia, leihoak zabalik daude. Sekulako burrunba sortzen du terrenak lurra jotzean. Eta zer demontre, udaberria da-eta, eta txoriak kantuan, harremana dago, dudarik gabe, baina ez duzu horretaz pentsatzen, eta azken batean natura da, bere ibilbideari jarraitzen, Miren.

ARRAIN HILAK

Arrain hilak bizirik ez daudela begien bistakoa da. Beste gauza bat da olatuek hondartza batera eramandako arrain hilek arrain bizien ideia bi-zi-bizia gogora ekartzea. Bizirik daudela dirudi. Alde batera utzita gel-dirik daudela elkarren ondoan edo aldaera gutxiko motiboak eratzen, batzuk goraxeago, bestetzuk beheraxeago, inguruan algak eta maskor hutsak, itsas arkakusoak, belaki hilak, erabat hilak, bizirik daudela dirudi, edo behinik behin kontzientzia kolpatzen du arrain bizien ideiak eta gogo eutsiezin batek haiek bizirik ikusteko, haiek arrantzatzeko, haiekin zerbait egiteko, zerbaitetarako erabiltzeko, haien alboan igeri egiteko, zeure burua itsasoan hondoratzeko beste itsas landareen artean balantzaka korronte goibelean eta haiek labaintzen ikusi batera eta bestera, ihes egiten, geldi-geldirik, hegalak era ia onartezinean higitzen eguzkiaren argipean, arazoak arazo iragazi egiten baita, edo sare zilindriko baten makila bihurtzen, gauzarik bareena, oker, distiratsu, algez estalia, hari heltzean argi ez bazabiltza larruazala ebakitzen duena, eta odolak gora egiten du, haritxo artega bat ur mugikor mugitu mugiarazlean. Hilik daude, ordea, zentzugabea bada ere, edo alderantziz, gu gara zentzugabeak, badakigulako itsasoak urrutitik ekarritako akulak hilik daudela, seko hilik, hilotz mordo bat da, zuzenean zakarrontzira edo zabortegira botatzeko, edo beharbada oilategi batera, eta bertako animaliek, buru zoroa okertuta eta begi artegak kliskatuz, bizkar mamitsu distirante bat bilatu eta kosk kosk hasiko dira mokadu baten bila dena usteldu eta kiratsa botatzen hasi baino lehen.

ANEMONAK

Anemonak biltzen ari naiz azaroan, eta ezki hosto berde argiak, benebenetan. Baina aldi berean sentimendu zintzo baten bila ari naiz, ez ote dago bat, bat bakarrik, hartaz «hona hemen bat», esan daitekeena. Ezkutu oro erori dira, inguratze mugimendu oro txatartu, ezkutatze maniobra oro kamuflajez gabetu. Ez luke horren zaila izan behar, sentimendu faltsuak ere sentimenduak baitira, eta zintzoak bezain errealak. Azken hauek, berriz, aurkitzen zailak dira, aurkitzen baldin badira. Urgentziatzko ondorioa: sentimendu faltsuak dira zintzoenak! Beharbada bakarrik, nik al dakit, azaroan anemonak biltzen ditudan bitartean, eta ezki hosto berde argiak jasotzen. Azaroan. Bien bitartean tinko helduta daramat txakurraren lepokoia, kate batek eta *zigor-lepoko* batek osatua, piztia gobernaezina baita. Berdin-berdin dio oihu egiten baduzu, garrasi, erregutu edo eskatzen baduzu, doi-doi gogoak ematen diona egiten baitu. Non eta etengabe lotuta ez daukazu eta uhalari gogor eusten ez diozun tiraka hasten denean, baina ezin liteke, ezin liteke ilaje luze horraileko animalia eder hau beti etxe barruan egotea, beti ufaka, arnaska eta intzirika, beraz klik, alde hemendik, eta bien bitartean baretu egin naiz, ondotxo baitakit azaroan ez dagoela anemona bakar bat ere, ezta ezki berde argirik ere, bakarrik hosto marroiak eta haize izoztu bat aurpegian muinoa inguratzean, eta hor dator xakurra, ahutzetan oilo bizi bat daramala, eta lepokoari heldu eta estutuz eta tiraka askatu dut aberea eta hortxe datza, saiheska, oilo bat saiheska etzanda! Irrigarria da, baina orduan esnatu eta etxalderantz itzuli da hegoak astinduz, eta hots bel-durgarria egin du altzairuzko kateak txakurraren bizkarra jotzean, oihu ito bat, maleta bizi bat jotzean bezala, ustekabeko burrunba gor bat, besoan gora zabaldu eta anestesia moduko bat bilakatu dena kolpe sortak aurrera jarraitu bitartean. Altzairu zaporea ahoan, azaroko zerua lixiba ur zikina bezala, euria izoztua, abere mutuaren ergeltasuna mugagabea, nahasmendua erabatekoa, definizio kupoa agortua. Bien bitartean hostorik gabeko basoa gorritu egin da flamenko koloreko anemona hodei bat eratuz eta ezkiak ernamuindu egin dira, *so help me God, I'm telling the truth, the whole truth and nothing but the truth.*

GONBIDATUAK AFARITARA

«Kaixo, aspaldiko, ongi etorriak!». Badago horretan halako naturaltasun bat, ia-ia jarraipenarena bezain indartsua: «Hau poza zuek ikustea!», «Aurrera, aurrera, emazkidazue berokiak». Perfektua da, behar den bezala eta arau guztien arabera. Gero harreragela dator, eskailera eta jantzitegia, bainugela ezkerretara, eta geroxeago oinak atalasea zeharkatu eta hurrengo gelara sartu dira, edo beste batera eta gero sukaldara, hura gainerako gelak baino beroago dago eta bestelako usaina dago, usain gozoa, eta oinak bideari lotu zaizkio, harik eta pisua arindu zaien arte ipurdiak sofa eta aulkitan pausatu direlako, eta botilei kortxoak kendu frop frop eta dilin dilin dilin (izotza) eta glob glob glob eta zanga zanga zanga, halako naturaltasun bat dago horretan, artifizialtasunari hurbiltzen zaiona, ez, ez da hori, ez «artifizialtasunari», gehiago «artifizioari», gauza txinatar edo japoniar baten antzera, eta haren erabilera jarraitua tanta baten moduan erortzen da buru gainera, paf paf paf, eta begiak okertu egiten dira gero eta gehiago eta zorotasuna agerian dago zatikatze mahaian, txukuntasun beldurgarrian, baina ez gara horretaz mintzatuko, eromen hutsa izango litzateke, izan ere, formula ugari daude trantsizioa egiteko ez bakarrik sofatik aulkira, egongelatik jangelara, baita solaskidetzara ere, hemen ez dago inolako mugarik, gordailua beteta dago eta bizitza osorako edo gehiagorako iraungo du, non eta halako batean norbaitek pistolaren katua sakatu eta *soupe au cresson* zerbitzatu berriaren gainean tiro egiten ez duen, edo kopeta txahal masail-mami erregosietan erortzen utzi gantz zati itzel batek eskuineko bentrikuluan kokatu eta behar den bezalako infartu bat eragin ondoren. «Ia prest dago, berehalakoan afalduko dugu!». Zein xarmagarri dagoen emaztea ate bikoitzaren erdian bere irribarre polit eta ile hezearekin, ez dago haren nekea salatzen duen zimurrik, odol presioaren bizitasuna ezin nahasizkoa da eta denok, den-denok salbuespenik gabe uste dugu maitagarria dela, izugarri maitagarria eta guztiz fidagarria. Erabat.

MAITERREA

Bat-bi-hiru konbinazio zaharra da, baina kolpeak normalean baino beherago jo du, egia esan ohiko mugaren azpian, ez dago arrazoirik maiterreak plexu solarraren erdian jotzen duela ezkutatzeko. Eta emakumea aurrerantz makurtu da, ez, zuzendu egin da, tinko aurrera begiratu eta oreka gordetzen saiatu da, baina ez da erraza hiru hankadun aulki bat azpian duela, eta gizona ere azpian duela, baina hura altxatu egingo da, ihes egingo du, hatzen artean desagertu eta desegin. Pentagramaren marrak, lodiak eta meheak, goranzkoak eta beheanzkoak, erle-mulkoa edo norbait ibili den tintontzi irauli bat, eta gizonaren izterren berotasuna ipurmamietan eta mozkorraren desitxuratzeko ergelak, oinazea arindu beharrean lodiago egiten dutena, gorrigo, sarkorrigo, erdiragarriago, egonkorrigo, absurdoago. Horixe da bera, aurrera egiten duenean ahate baten moduan ukabilak altxatuta kolpeak jotzeko prest, kolpe bidegabeak, kolpe sendoak urdailean, umetokira, Falopioren tronpara, esofagora, bentrikulura, barera, gibelera iristen direnak, bat-bi-hiru, nola egin dezake? Eta gero musikak eta barreak zer sortzen dute batera? «Ergelen polka»? «Esan ziyola» edo «Blue Moon»? Negarra ito beste erremediarik ez dago, gizon baten modura hartu, kolpearen aurrean makurtu eta emakumea ilegorri moduan irudikatzeari utzi. Ilegorria? *Ilegorria* ere ba al da sorgin hori? Bat-bi-hiru.

Eskuak atzean utzi ditu estatuak eta parkean dago orain. Lehoia jausian harrapatuta geratu da. Maitaleak beren bolumenaz molekula lekualdatzen ari dira. Baina zergatik ez da ezer gertatzen?

ZER EGINGO DUGU?

«Jangelan bazkalduko al dugu?». «Bai, hori da!». «Alde ederra dago larunbatean lana honen goiz bukatzen duzunean». «Non dago mahai zapia?». «Goiko tiraderan, ezkerretara». Bi aizto, bi sardexka, bi baso. Zuntzeko zapi-babesa jarrita dago. Auto bat pasatu da kanpoan. Bizikleta pare bat ere bai, eguzkiak ez du presarik. «Ura ekarriko?». «Ez al dugu garagardoa edan behar?». «Konforme, nahi baduzu». «Ez ahaztu tapa irekitzekoa». Patea, hirugihar hotz-egosia, pepinoa, gazta. «Gaztarako aiztoa ekarri duzu?». «Ahaztu egin zait». «Banoa». Zozo bat. «Ederki gosetuta nengoen». «Bai». «Bitxia da, gogoko dut pate hau, nahiz eta industrialia izan, noski». «Hara». «Ez zaizu gustatzen?». «Bai, bai, baina agian gantzatsuegia niretzat». «Beharbada horrexegatik iruditzen zait hain ona!». «Kar-kar». «Topa». «Topa». «Egingo dut nik harrikoa». «Ez, zergatik? Lagunduko dizut». «Larunbata da». «Aste osoan egin duzu». «Ez da ezer». «Baina gero lo egin dezakegu, lo-kuluxka». «Topa». «Topa». Esku horiek. Begira nola mugitzen diren. Orain geldirik daude. Baina une bat besterik ez da, gero berriz hasi dira mugitzen. Eguzkiak ez du presarik, batere mugitu ez balitz bezala da, pertsianetatik iragazi eta ohe gainera bere kasa eroriko balitz bezala. Eskuak. Auto bat pasatu da. Beroa nabaritzen da, badirudi larruazala zeharkatuz kanporantz irradatzen dela. Larruazal azpian odola badabil, ez dago geldirik. Baina eskua. Nire eskua zurearen gainean. Une bat. Emeki-emeki. Isiltasunez. Une bat. Orduan kamioi bat pasatu da, pentsa litekeen baino gauza ezohikoagoa, larunbata baita, ene bada, asteburua da, aski da. Beharrezko guztia dago: patea, hirugihar hotz-egosia, e. a. Eta honez gero ez dago inolako zalantzarik, nik egingo dut harrikoa. Egungo detergenteekin di-da egiten da, egia esan ezin errazagoa da.

UDAREONDOAREN AZPIAN


Hantxe –udareondo loratuaren azpian, edo loreak galduta al zegoen?– egin zuten topo haien ezpainek. Zoragarria izan zen, horratx. Uda hasierako gau eder bat zen eta disko-jogailuaren musikaren soinua hedatzen zen etxetik –atzealdean– lorategirantz. Itsasoa ez zegoen urrun, giroa blaitzen zuen eta zuhaitzen adarren artean astiro zebilen freskotasun xumea handik zetorren. Musu batek beste batera eraman zuen. Ez zegoen arrazoirik xehe-tasun fisiologikoetan sartzeko, inolako premiarik ez, ez bata ez besteak ez zuten pentsatu barne jariakinez edo hormona-orekaz. Haragi gazte hura zegoen bakarrik, garondoko eta besoetako bixarra eta bularraren gorabehera arnasa egitean, klaska xume entzungaitza ezpainak bereiztean edo berriro batzean eta lurrin usaina eta ezpainetakoaren zaporea, beharbada han zegoen sorginkeria jatorria, izan ere, egun berezia behar du izan neska gazte bat ezpainetako margotzen den lehen aldia, egun oso zehatz bat behar du izan, eta gogoeta eta agian baita eztabaida sorta luze baten ondorioa ere, agian solasaldi zintzoak izan dira, agian ekintza protesta gisa eta klandestinitate osoz egin liteke, baina egun batean askatasunaren –edo antzeko zerbaiten!– ordua iritsi da eta nahi adina margo daiteke, gainera ondorio txundigarria du, seinaleak aldatu egiten baitira, orain segurtasunik eza ez dagokio nolari eta beharbadari eta zergatiari, orain kontua askoz gehiago da maniobra dotore horrek zertara eraman dezakeen, soinuaren bertan nabaritzen da: eskuko poltsaren klika ireki eta ixtean, taparen hotsa ezpainetako deskribiltzean, blusaren hotsa gerrikoa igurztean (eta gerrikoaren hotsa!) aurpegia ispilura ahalik eta gehien hurbiltzeko mugitzean, ezpainak gorri-gorri gera daitezen ez gehiegi ez gutxiegi eta ezpainaren ertza gaingitu gabe baina azala ongi okupatuta uztaia nabarmentzeko, *Kupidoaren uztaia*, hori da, eta horixe da aurreikusi ezinaren gakoa, inork, ia inork, ezin baitu jakin, agian ezta deabruak berak ere, zertara eraman dezaketen –klik– ezpainetakoak eta brillantinak, baina aukera hortxe dago, izan ere, hain da erraza eta naturala adin horretan musuak trukitzea lorerik gabeko udareondo baten azpian (udareondo bat zen!) eta ilunabarraren brisa xumea aditzea zuhaitzen adarren artean, baita etxeko musika eta gonbidatuak ere, haiengana itzuli beharra dago aurki eta agian «apur bat txukundu» eta beste norbaitekin dantzatu musuen zaporea ezpainetan oraindik eta begirada bat gelaren beste muturrera, aukerak daude, aukera hori edo agian beste batzuk, guztiz bestelakoak, batek daki, orain ez baitu inork sudurra sartzen eta azken batean udaren hasiera da.

KALEXKA ESTUETAN BARRENA

Kalexka estuetan barrena karez horizatutako etheen artean galtzadarrizko zola koskatsuaren gainean antzarak balantza txikian dabilta eta esan beharrekoa ari dira esaten. Teila gorrien gainean eguzki argi urre-kolorea zabaltzen da, eta kalea zelatatzeko ispilutxo bana daraman kristal distiratsu bakoitzaren aurrean malba gorriak buruak astintzen ari dira. Guztia da errealitatea eta ezin eztabaida daiteke. Jakina eztabaida daitekeela, baina ba al dago horretarako arrazoirik? Egia esan ez dio axola, aspaldiko kontua delako, belaunaldi bat atzera gutxienez. Axola du, ordea (bartzuentzat!), kale kantoia pasatzean (sorpresa, sorpresa) bere presentzia hutsez zerbait abiarazi zuen neska hurbiltzea. Ederra zelako gertatu zela esan liteke. Bai, bai, noski. Baina asko dira ederrak. Bien bitartean han zetorren bere adats kizkur beltz oparoarekin eta errege etxeko portzelana bezain urdinak ziren begiekin karez horizatutako etheen artean kalexka estuetan barrena galtzadarrizko zola koskatsuaren gainean hitzik esan gabe, baina horrek ez zion batere axola, zeren eta eguzki argi urre-kolorea teila gorrien gainean zabaltzen zen eta kalea zelatatzeko ispilu bana zuten kristal distiratsuen ondoan malba gorriak buruak astintzen ari ziren bitartean bihotza gelditu egin baitzen. Erabat gelditu. Eta zorabio itzel batek, odola ponpa indartsu geldiezin batek bultzatuta balebil bezala, kolorea igoarazi zuen masailetara, ez zegoen hura ezkututzerik, dena agerian zegoen ikusterik ez egon arren, eta jakina, neskak zerbait esan zuen, zuzenean estratosferaraino igo zen hutsalkeriaren bat, eta hurrengo unean desagertu egin zen eta kito, ezerezean geratu zen dena, ez zen hitz erdirik ere izan, baina bai: zantzu bat, berdin-berdin suerta liteke gertatu ez izana, dena erabakita zegoen alde zurretik, txilibituak hots egin zuen inork oin bat ere mugitu baino lehen, GAME OVER, gezurra da, ordea, zerbait gertatu baitzen, esanda dago, kalexka estuak, etxe horiak, eta abar e.a. *ad infinitum*. Baina antzarak? Kale kantoian biratu dute.

Harresian usoak beren itzalarekin batzen dira hegan iristen direnean, baina ez da inolako ilusio optikoa eguzki dirdiratsuen argipean. Hegan iristen dira beren habietara, horixe egiten dute, baina beste zerbait ematen du, badirudi usoak batu egiten direla beren itzalarekin, harekin bat egiten dutela eguzki dirdiratsuen argipean. Benetan.

Hilobi gris apalak bikain dautza zuhaitz arinen artean hilerri protestantean. Uso baten urruma aditzen da. Norbait txistuka ari dela ere esan liteke. Baina ez dabil inor, aihen zuri bat kiribiltzen da zutabe baten inguruan, besterik ez, eta arretaz entzuten jarritz gero aditu egin daiteke pipila ireki eta loreak bere petaloak zabaltzen dituenean. Urdinak.



Poemas En Prosa De Klaus Rifbjerg

Klaus Rifbjerg [1931] es uno de los autores más representativos y conocidos de la literatura danesa de posguerra. Escritor extremadamente prolífico y polifacético, entre su obra publicada se encuentran colecciones de poesía, novelas, ensayos, multitud de artículos... Durante décadas ha sido una persona absolutamente central dentro del debate cultural en Dinamarca. *70 epifanías* es un poemario en prosa, escrito con motivo de su 70 cumpleaños, en el que «la energía y el humor son conceptos clave, pero también lo es la conciencia humilde de lo efímero que es todo y el deber artístico de aceptar lo que te ha deparado el destino».

Poèmes en prose de Klaus Rifbjerg

Klaus Rifbjerg [1931] est un des auteurs les plus représentatifs et les plus connus de la littérature danoise de l'après-guerre. Écrivain extrêmement prolifique et éclectique, dont l'œuvre comprend des recueils de poésie, des romans, des essais, une multitude d'articles... Pendant des décennies il a occupé une place centrale dans le débat culturel au Danemark. *70 épiphanies* est un recueil de poèmes en prose, écrit à l'occasion de son 70^e anniversaire, où « l'énergie et l'humour sont des concepts clé, mais aussi l'humble conscience de l'éphémère, ainsi que le devoir artistique de l'accepter ce que le destin vous réserve ».

The Prose Poems of Klaus Rifbjerg

Klaus Rifbjerg (1931-) is one of the most representative and well-known authors of post-war Danish literature. A highly prolific and versatile writer, his published works include volumes of poetry, novels, essays, and many articles. For decades, he has been a supremely central figure in cultural debate in Denmark. *70 Epiphanies* is a volume of prose poetry written on the occasion of the author's 70th birthday, and in which "energy and humor are key concepts, as are the humble awareness of how ephemeral everything is and one's artistic duty to accept what destiny offers."